

### 3.FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure eraztuna finantzatzeko modu ezberdinak pentsatu ditugu. Alde batetik, polizia eta Gasteizko udalaren laguntzarekin hasiko ginateke baina hau ez da aukera bakarra, beste alde batetik produktuan interesatuta dauden akzionista batzuekin hitz egingo genuke eta gure produktuaren aurkezpen bat eginez beraien kolaborazioa eskatuko genieke. Hornitzaileak oso garrantzitsuak dira berain laguntzarik gabe proiektu hau ezin izango baitzen aurrera atera, gu talde txiki bat gara ia baliabiderik gabekoak eta lan hau handiegia da guretzat.

*Emakunde* erakundearekin lankidetzat saiatuko dugu lortzen, Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa da, berdintasunerako politikak diseinatu, bultzatu, haien inguruan aholkatu, koordinatu eta ebaluatzen dituena, bai eta gizartea sentsibilizatzen duena ere, EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lortzeko xedez. Azkenean gure produktua emakumeentzat bideratuta dagoenez gehien bat, uste dugu gustura hartuko dutela gure proposamena.

Lehen esan dugun bezala, poliziaren laguntza jasoko genuke. Segurtasun erakundeei edo poliziari gure eraztuna erasotzaileari edo lapurrari buruz kontu asko argituko lieke, adibidez mikrofonoaren bidez harrapatutako elkarrizketei esker. Hau guztia bada arrazoi bat poliziak gure eraztuna eta gure proiektua finantzatzeko. Gasteizko Udalari, aldiz, ez diogu inolako laguntza zuzenik eskaintzen, baina bere funtzioari dagokionez komenigarria da finantza hau egitea, ez dituelako kostu oso handirik eta Gasteizko nahiz eta beste gizarte batzuen segurtasuna eta indarkeria murrizten duelako, eta hori Udal batentzako lehentasun bat da, hau da, gizartearen ongizatea lortzea.

Gure azkenengo finantza iturria, akzionistak dira. Hauen bidez dirua lor dezakegu gure produktua hobetzeko eta beste merkatu batzuetarako irekitzeko, gainera hasieran sortutako zorrak erraz ordaindu ahal izango genituzke. Baina kasu honetan ez dira guztiak gauza onak, akzionistak dirua inbertitzen dutelako gero diru gehiago irabazteko, orduan iturri hau oso kontrolatuta egon beharko da.

Finantza iturri hauen guztien laguntzarekin, oso ondo atera ahalko ginateke merkatura, azkenean arriskuak murriztuko genituzke, baliabide berriak eskuratzeko dirua lortuko genuke eta negozio eredia optimizatuko genuke.



